

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Elkargunea Fundazioa
Emandako dirulaguntzak

Subvenciones a la
Fundación Elkargunea

2001 - 2002



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	3
I. ARABAKO FORU ALDUNDIA	5
II. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	6
III. EUSKO JAURLARITZA.....	7
INTRODUCCIÓN.....	9
I. DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA	11
II. DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA	12
III. GOBIERNO VASCO	13
ALEGAZIOAK / ALEGACIONES	15

Vitoria-Gasteiz, 2004ko ekainaren 2a

Vitoria-Gasteiz, a 2 de junio de 2004



SARRERA

Txosten hau euskal administrazio publikoek Elkargunea Fundazioari emandako dirulaguntzei buruzkoa da eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki mamitu da; 2003ko ekaina – 2004ko maiatza bitarteko Urteko Lan Programan barne hartua dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta.

Lanak honako atal hauek besarkatu ditu:

- Diruz lagungarri diren lerroak arautzen dituen arautegiaren analisia, zeinen kontura eman baitzaizkio Fundazioari laguntzak 2001 eta 2002ko urteetan zehar.
- Dirulaguntza eskearen eta administrazioak laguntza emateko erabilitako prozeduraren analisia.
- Garatutako jardueraren justifikazioaren analisia.

Elkargunea Fundazioa 1998ko ekainaren 3an sortu zen Bilbon eta Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan 2000ko martxoaren 20an inskribatu zen.

Fundazio honen helburua da “gizarte, politika eta kultur mailako gaiei buruzko ikasketa, jarduera eta ikerketa mota oro sustatu, garatu, babestu eta indartzea, eta batez ere, Liberalismoan eta mendebaldeko Humanismoan, Euskal Herrian bereziki, inspiratutako balore eta helburuetan trebatzea”.

Fundazioen Erregistroak, Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Fundazioak berak emandako informazioaren arabera, honek 2001 eta 2002ko urtealdietan Euskal Sektore Publikotik jasotako dirulaguntzak honako hauek izan dira:

	€				
	emandakoa	Baliogabetua	Ordaindua	Itzulia	Dirulaguntza Garbia
2001eko urtealdia					
Arabako Foru Aldundia.....	12.020,24	10.862,13	6.010,12	4.852,01	1.158,11
Bizkaiko Foru Aldundia.....	6.010,12	-	6.010,12	-	6.010,12
Eusko Jaurlaritza	4.808,10	-	4.808,10	-	4.808,10
GUZTIRA	22.838,46	10.862,13	16.828,34	4.852,01	11.976,33
2002ko urtealdia					
Bizkaiko Foru Aldundia.....	6.010,00	-	6.010,00	-	6.010,00
Eusko Jaurlaritza	6.010,00	6.010,00	4.507,50(*)	-	-
GUZTIRA	12.020,00	6.010,00	10.517,50	-	6.010,00

(*) Itzulketa prozedura abian da



Bi urtealdi hauetan Fundazioaren ustiaketa gastuak honako hauek izan dira:

	€	
Urtealdia	Gastuak	% finantzaketa
2001.....	45.816,19	26,14
2002.....	33.981,48	30,95

Jasotako finantzaketaren ehunekoa kalkulatzeko urtealdi horietako dirulaguntzen kontura egindako ordainketak hartu dira gogoan. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza kentzea gauzatuko balitz, 2002ko urtealdiari dagokion ehunekoa %17,69ra arte murriztuko litzateke.

Ondotik, erakunde bakoitzak emandako dirulaguntzak aztertuko ditugu, emakidan erabili den prozedura eta erakunde emaileari zein onuradunari ezargarriak zaizkien hutsak deskribatuz.

I. ARABAKO FORU ALDUNDIA

Arabako Diputatu Nagusiaren 80/2001 Foru Dekretu bidez, maiatzaren 3koa, organizazio bakezaleei dirulaguntzak emateko deialdia oniritzi zen, bakearen eta tolerantziaren aldeko hiritarren konpromisoa sustatuko duten programak garatzeko, 48.080,97 euroko zuzkidurarekin.

Elkargunea Fundazioak eskabidea 2001eko azaroaren 6an aurkeztu zuen eta Arabako Foru Aldundiak 12.020,24 euroko dirulaguntza eman zion 4 mintegik eragindako kostua eta horiei zegokien argitalpenen edizioa finantzatzeko, hurrenez hurren 3.005,06 y 9.015,18 euroko zenbatekodunak.

2001eko abenduaren 31n 6.010,12 euro baliogabetu ziren, abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 68. artikulua ezarrita, urtealdian sortutako obligazioak betetzeari lotua ez egoteagatik, hau da, ez baitira hasiera batean ordaindutako %50etik gorako gastu subentzionagarriak egin eta Aldundiak exekuzioan luzapena ematea ez zegokiola irizteagatik. Gerora, 2002ko otsailaren 19an 4.852,01 euro baliogabetu ziren, egindako gastuaren justifikazioa ordaindutako dirulaguntza baino txikiagoa izateagatik.

Dirulaguntza emateari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:

1. Dekretuan ez da ezer ere zehaztu dirulaguntzaren zenbateko edo portzentaje gehienekoari dagokionez. Aurrekontuaren gaineko dirulaguntzaren portzentajea %33koa izan da mintegiak antolatzeke eta %60koa liburuak argitaratzeko.
2. Ez da egin 10. eta 11. oinarri-arauen arabera egin beharrekoa den eskabidearen baloraketa eta ez da justifikatzen laguntzak jasotzeko beharrak eskabideak aurkezteko epe normalaz berantago sortu izana, ezinbesteko betekizun dena 2001eko ekainaren 21a behin igarota dela, zazpigarren oinarri-arauaren 2. paragrafoaren arabera.
3. Ez dira gardentasunez zehaztu zein diren diruz lagungarri diren gastuak. Honela, bada, jarduera justifikatzerakoan, Fundazioaren gastu orokor diren 101 euro barne hartu dira.

Dirulaguntzaren xedeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:

1. Espedientean ez da ageri diruz lagundutako konferentziaren deialdian gauzatutako publizitatearen dokumentaziorik, AFaren aldetik elkarfinantzaketari erreferentzia egiaztatzea bideratuko duena, 16. oinarri-arauak eskatutakoa.
2. Liburuen edizioari dagokionez, justifikatutako gastua partziala da, konferentziaren transkribapena baizik ez baitu barne hartzen, inongo libururen ediziorik gauzatu ez dela.
3. Egindako konferentziaren izenburua ez dagokio dirulaguntzaren eskabidean jasotakoetarik inori, nahiz deialdiaren xedean lekurik izango lukeen. 13. oinarri-arauaren arabera, aldaketa hau Komunikazio Zuzendaritzari jakinarazi behar zitzaiokeen abenduaren 15a baino lehenago.

Halaber, adierazi behar dugu 12. oinarri arauak justifikatutako gastua osorik ordaintzea bideratzen badu ere (2.897,57 euro), gastu hau emandako dirulaguntza baino txikiagoa izanik, AFAk gastuaren eta dirulaguntzaren arteko proportzioa gordetzeko irizpideari eutsi diola, 1.158,11 eurotara murriztuz. Aplikatutako irizpidea arrazoizkoa iduri zaigu.

II. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) Kultura Sailak hala proposatuta, martxoaren 13ko 43/2001 eta martxoaren 26ko 68/2002 Foru Dekretuak oniritzi ditu, hurrenez hurren, 2001 eta 2002ko urtealdietan zehar udalaz gaindiko izaerako kultur proiektuak egiteko dirulaguntzen emakida arautzen dutenak. Dekretu horietan Kultur elkarte pribatu, Fundazio eta Unibertsitateak diruz laguntzeko barne hartutako zuzkidura 1.436.424,63 eurokoa izan da 2001erako eta 1.235.987 eurokoa 2002rako.

BFAk Elkargunea Fundazioari emandako dirulaguntzak 6.010,12 eta 6.010 eurokoak izan dira “Konferentziak” eta “Mintegiak eta konferentziak” proiektuetarako, aztertutako bi urtealdietako bakoitzean aurkeztu zirenak, eta 24.040,48 eta 50.841,09 euroko onartutako aurrekontuak zituztenak.

Dirulaguntza emateari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:

1. 2001eko urtealdian BFAk Fundazioak aurkeztutako aurrekontua doitu du, egindako murrizketaren arrazoiak jasota utzi gabe, egiaz subentzionatutako kontu-sailak zein diren jakiterik ez dagoela.
2. Ez 2001eko urtealdian, ezta 2002koan ere, ez dira dirulaguntzaren zenbatekoa kuantifikatzeko erabilitako zioak edo moldea zehaztu; honi gehitzen badiogu erabilitako prozedura lehiaketa sinplea dela, ez da 10/1997 FAren 95. artikulua agindutako emakidaren objektibotasuna bermatzen.
3. Dirulaguntzaren eskabidean jardueren helburu, toki eta datak adierazten ez baziren ere, dekretu arautzaileen 3. artikulua eskatutakoak, eskabidea onartu egin da.

Dirulaguntzaren xedeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:

1. Konferentziak egin eta sustatzeko erabilitako kartel edo eskuzko aleak ez dira aurkeztu, ezta argitaratutako liburuen inongo alerik ere; honenbestez, ez da egiaztatu ekintza horietarako BFaren aldetik jasotako finantzaketari egin beharreko aipamenak barne hartu direla.
2. AFAk 2001eko urtean Fundazioari emandako dirulaguntzaren berri ez zaio BFari eman.
3. 2002an egindako ustiaketa gastuaren zenbatekoa, Fundazioen Erregistroan gordailatutako kontuen arabera, 33.981 eurokoa izan zen, aurkeztu eta onartutako aurrekontua 50.841,09 eurokoa izan zelarik. Honez gain, emandako hitzaldi kopurua 3koa izan zen, 5 egitea aurreikusi bazuten ere, eta liburu bat baizik ez zen argitara

eman, hainbat argitaratzeko asmoa izan arren. Jarduera urri honek ez du dirulaguntza murriztea eragin.

4. Argitaratutako liburuen eta emandako hitzaldien izenburuak dirulaguntza eskaeran aurkeztutakoez bestelakoak dira.

III. EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuordetzak, 2001eko martxoaren 14ko eta 2002ko apirilaren 10eko Agindu bitartez, urtealdi horietara 2000ko ekainaren 7ko Agindua egokitu du, kultur jarduera jakinetarako dirulaguntzak deitzen dituena.

Eusko Jaurlaritzak Fundazioari emandako dirulaguntzak 4.808,10 eta 6.010 eurokoak izan dira, hurrenez hurren, mintegi hauek antolatzeko: “adituek egindako mintegiak, non EAEn kultur intereseko gaiei buruzko hausnarketa egiten den eta ondoren horien argitarapena”; eta “kultur intereseko gaiei buruzko mintegiak eta ondoko argitalpena”, aztertutako bi urtealdietan.

Dirulaguntza horiek emateko aurrekontua Fundazioak aurkeztutakoa da, hurrenez hurren 39.359,03 eta 50.841,09 eurokoa.

2003ko apirilaren 7an eta 2002ko urtean garatutako jardueren egiaztagiri modura aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, Kultura Sailburuak 2002ko urtealdian emandako dirulaguntzari zegokion bigarren ordainketa ez gauzatzea eta aurrez ordaindutako 4.507,50 euro itzultzeko prozedurari ekitea erabaki zuen, gauzatutako kultur jarduera ez zettorrela departamentuak oniritzitakoarekin bat iritzi izateagatik. Fundazioak apirilaren 29an Agindu horri alegazioak jarri zizkion. 2003ko urriaren 6an Kultura Sailburuak alegazioak aztertuta, ordaindutako dirulaguntza itzultzea eta ordaintzeko zegoen %25a behin-betiko baliogabe uztea erabaki zuen. 2003ko azaroaren 14an Fundazioak dagokion berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu du.

Dirulaguntza emateari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:

1. Ez da Fundazioak aurkeztutako proiektuaren baloraketa egin, 2000ko ekainaren 7ko Aginduaren 8. artikuluan adierazitako irizpideen arabera.
2. 2001eko urtean ez zen ebazpen proposamena egiteko zehaztutako epea bete, ia 2 hilabeteko atzeraldia metatuz. 2002an proposamena epe barruan egin arren, ebazpena ere ia bi hilabeteko atzeraldiarekin onartu zen.
3. 2001eko urtean eskabidea onartu zen, %30eko autofinantzaketa maila gutxienekoa ez izan arren.
4. Nahiz eta 2001eko dirulaguntza egindako hitzaldiak argitaratzeko eman bazen ere, eskabidea 4 liburu argitaratzeko zen.

Dirulaguntzaren xedea justifikatzeari dagokionez, hona hemen azaleratu diren hutsak:

1. AFAk 2001eko urtean Fundazioari emandako dirulaguntzaren berri ez zaio BFari eman.
2. Fundazioak 2001ean eta 2002an aurreikusitako hitzaldien izenburuak eta egiaz egindakoak, ez datoz bat. Gainera, aurreikusitako hitzaldi kopurua (8, 2001ean eta 5, 2002an) egiaz egindakoak baino handiagoa da (6, 2001ean eta 3, 2002an).
3. 2001eko urtean 3 liburu editatu edo horien edizioan lagundu da eta hitzaldien transkribapena gauzatu da, nahiz horien argitalpena edo hedapen modua jaso ez dagoen. 2002ko urtean eskabidea eta emakida hitzaldiak argitara emateko ziren; horien ordeztu, alabaina, liburu bat argitaratu zen, aurrez aldatuta horren berri Kultura Sailari eman gabe.
4. Fundazioaren arabera 2002an egindako gastua, 36.829,66 eurokoa izan zen, aurkeztu eta onartu zen aurrekontua 50.841,09 eurokoa izan zelarik. Egindako gastutik 31.692,49 euroko zenbatekodun gastuak justifikatu direla egiaztatzen ahal izan dugu.
5. Emandako hitzaldien gainean egindako publizitatean ez da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila babesle dela ageri.

Amaitzeko esan behar dugu ondotik adieraziak daudela 2002ko urtealdiaren dirulaguntza baliogabetzea eta gora jotzeko errekurtsioa lehenik, eta berraztertzea ondoren, aurkeztea eragin duten alderdi nagusiak:

1. Gauzatutako jarduerak dirulaguntzaren emakida baldintzak betetzen dituzten edo ez.
2. Justifikatutako zenbatekoa eta hau araudiak agintzen duen justifikatzeko gutxienekoa den.
3. Arau haustearen edo jardueraren exekuzio txikiagoaren suposamendua den.



INTRODUCCIÓN

Este informe referido a las subvenciones concedidas por las administraciones públicas vascas a la Fundación Elkargunea se realiza conforme a la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, y está incluido en el Programa Anual de Trabajo para junio 2003 - mayo 2004, a petición de la Comisión de Economía y Hacienda del Parlamento Vasco.

El trabajo ha consistido en:

- El análisis de la normativa reguladora de las líneas subvencionables con cargo a las cuales se le han concedido ayudas a la Fundación durante los años 2001 y 2002.
- El análisis de la solicitud de la subvención y del procedimiento seguido para su concesión por la administración.
- El análisis de la justificación de la actividad desarrollada.

La Fundación Elkargunea es una fundación constituida el 3 de junio de 1998 en Bilbao e inscrita en el Registro de Fundaciones del País Vasco el 20 de marzo de 2000.

El fin de dicha Fundación es la “promoción, desarrollo, protección y fomento de toda clase de estudios, actividades e investigaciones sobre temas sociales, políticos y culturales y principalmente la formación en los valores y objetivos inspirados en el Liberalismo y el Humanismo occidental, especialmente en el País Vasco.”

De acuerdo con la información obtenida del Registro de Fundaciones, de las Diputaciones Forales, del Gobierno Vasco y de la propia Fundación, las subvenciones percibidas por ésta del Sector Público Vasco durante los ejercicios 2001 y 2002, han sido las siguientes:

	Concedido	Anulado	Pagado	Devuelto	Subvención Neta
€					
Ejercicio 2001					
Diputación Foral de Álava	12.020,24	10.862,13	6.010,12	4.852,01	1.158,11
Diputación Foral de Bizkaia	6.010,12	-	6.010,12	-	6.010,12
Gobierno Vasco	4.808,10	-	4.808,10	-	4.808,10
TOTAL	22.838,46	10.862,13	16.828,34	4.852,01	11.976,33
Ejercicio 2002					
Diputación Foral de Bizkaia	6.010,00	-	6.010,00	-	6.010,00
Gobierno Vasco	6.010,00	6.010,00	4.507,50(*)	-	-
TOTAL	12.020,00	6.010,00	10.517,50	-	6.010,00

(*) Iniciado el procedimiento de reintegro



Los gastos de explotación de la Fundación durante estos dos ejercicios han sido los siguientes:

€		
Ejercicio	Gastos	% financiación
2001.....	45.816,19	26,14
2002.....	33.981,48	30,95

El porcentaje de financiación recibida ha sido calculado teniendo en cuenta los abonos efectuados con cargo a las subvenciones de dichos ejercicios. De llegar a término la retirada de la subvención del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, el porcentaje correspondiente al ejercicio 2002 se reduciría hasta el 17,69%.

A continuación se analizan las subvenciones concedidas por cada una de las instituciones, describiendo el procedimiento seguido en la concesión y las deficiencias atribuibles tanto al ente concedente como al beneficiario.

I. DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Por Decreto Foral del Diputado General de Álava 80/2001, de 3 de mayo, se aprobó la convocatoria de subvenciones a organizaciones pacifistas para el desarrollo de programas que fomenten el compromiso cívico a favor de la paz y la tolerancia, con una dotación de 48.080,97 €.

La Fundación Elkargunea presentó su solicitud el 6 de noviembre de 2001, concediéndole la Diputación Foral de Álava (DFA) una subvención de 12.020,24 € para financiar el coste de 4 seminarios y la edición de las publicaciones correspondientes a los mismos, con un presupuesto de 3.005,06 y 9.015,18 €, respectivamente.

Con fecha 31 de diciembre de 2001 se anularon 6.010,12 €, en aplicación del artículo 68 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, al no estar afecto al cumplimiento de obligaciones devengadas en el ejercicio, esto es, al no haberse incurrido en gastos subvencionables superiores al 50% inicialmente abonado ni considerarse por la Diputación que era aplicable una prórroga en su ejecución. Posteriormente, el 19 de febrero de 2002 se anularon 4.852,01 € al ser la justificación del gasto incurrido inferior a la subvención abonada.

Con respecto a la concesión de la subvención las deficiencias detectadas han sido las siguientes:

1. No se especifica nada en el decreto con respecto al importe o porcentaje máximo de subvención. El porcentaje de subvención sobre el presupuesto ha sido del 33% para la organización de seminarios y del 60% para la edición de libros.
2. No se ha efectuado la valoración de la solicitud que de acuerdo con las bases 10ª y 11ª debe realizarse, ni se justifica que las necesidades de las ayudas hayan surgido con posterioridad al plazo normal de presentación de solicitudes, condición necesaria para su aceptación después del 21 de junio de 2001, de acuerdo con el párrafo 2º de la base séptima.
3. No se determina con claridad cuales son los gastos subvencionables. De esta forma se incluyen en la justificación de la actividad 101 € correspondientes a gastos generales de la Fundación.

En la justificación del objeto de la subvención las deficiencias detectadas han sido las siguientes:

1. No consta en el expediente documentación de la publicidad efectuada en la convocatoria de la conferencia subvencionada, que posibilite verificar la referencia, exigida por la base 16ª, a la cofinanciación por parte de la DFA.
2. Con respecto a la edición de libros el gasto justificado es parcial, incluyendo únicamente la transcripción de la conferencia, no habiéndose producido la edición de libro alguno.

3. El título de la conferencia celebrada no se corresponde con ninguno de los recogidos en la solicitud de la subvención, aunque sí encajaría en el objeto de la convocatoria. De acuerdo con la base 13ª este cambio se debía haber comunicado, a la Dirección de Comunicación, antes del día 15 de diciembre.

También debemos señalar que aunque la base 12ª permitiría el abono del gasto total justificado (2.897,57 €), al ser este inferior a la subvención concedida, la DFA ha aplicado el criterio de mantener la proporción entre el gasto y la subvención, reduciéndola hasta 1.158,11 €. El criterio aplicado nos parece razonable.

II. DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA

La Diputación Foral de Bizkaia (DFB) ha aprobado a propuesta del Departamento de Cultura los Decretos Forales 43/2001, de 13 de marzo, y 68/2002, de 26 de marzo, que regulan la concesión de subvenciones destinadas a la realización de proyectos culturales de carácter supramunicipal durante los ejercicios 2001 y 2002, respectivamente. La dotación incluida en dichos decretos para subvencionar a Asociaciones culturales privadas, Fundaciones y Universidades ha sido de 1.436.424,63 € para el 2001 y de 1.235.987 € para el 2002.

Las subvenciones concedidas por la DFB a la Fundación Elkargunea han ascendido a 6.010,12 y 6.010 €, para los proyectos de "Conferencias" y "Seminarios y conferencias" presentados en cada uno de los dos ejercicios analizados, con unos presupuestos aprobados de 24.040,48 y 50.841,09 €.

Con respecto a la concesión de la subvención las deficiencias detectadas han sido las siguientes:

1. En el ejercicio 2001 la DFB ha ajustado el presupuesto presentado por la Fundación sin que quede constancia de los motivos de la reducción efectuada, por lo que se desconocen las partidas efectivamente subvencionadas.
2. Ni en el ejercicio 2001 ni en el 2002 se detallan los motivos o la forma utilizada para cuantificar el importe de la subvención, los cuales, unido a que el procedimiento utilizado es el de concurrencia simple, no garantiza la objetividad de la concesión requerida por el artículo 95 de la NF 10/1997.
3. Aunque en la solicitud de la subvención no se incluían ni los objetivos, ni los lugares y fechas de celebración de las actividades, exigido por el artículo 3 de los decretos reguladores, se ha aceptado la solicitud.

En la justificación del objeto de la subvención las deficiencias detectadas han sido las siguientes:

1. No se han aportado los carteles o ejemplares de mano utilizados en la realización y promoción de las conferencias, ni ningún ejemplar de los libros editados, por lo que no se ha verificado la inclusión de las referencias exigidas a la financiación recibida para dichos actos de parte de la DFB.
2. No se ha comunicado a la DFB la subvención concedida a la Fundación por parte de la DFA en el año 2001.
3. El importe del gasto de explotación incurrido en 2002, según las cuentas depositadas en el Registro de Fundaciones, ascendió a 33.981 € mientras que el presupuesto presentado y aprobado era de 50.841,09 €. Además, el número de conferencias efectuadas fue de 3 cuando las previstas eran 5 y sólo se editó un libro cuando se preveía que fueran varios los editados. Esta menor actividad no ha supuesto una reducción de la subvención.
4. Los títulos de los libros editados y de las conferencias celebradas difieren de los presentados en las solicitudes de subvención.

III. GOBIERNO VASCO

La consejería de Cultura del Gobierno Vasco, por Órdenes de 14 de marzo de 2001 y de 10 de abril de 2002 ha adaptado a dichos ejercicios la Orden de 7 de junio de 2000 por la que se convocan subvenciones para actividades culturales concretas.

Las subvenciones concedidas por el Gobierno Vasco a la Fundación han sido de 4.808,10 y 6.010 € para la organización de "seminarios celebrados por profesionales en los que se reflexiona sobre temas de interés cultural en la CAV y posterior publicación de los mismos" y "seminarios sobre temas de interés cultural y su posterior publicación" en cada uno de los dos ejercicios analizados.

El presupuesto sobre el que se conceden dichas subvenciones es el presentado por la Fundación por importe de 39.359,03 y 50.841,09 € respectivamente.

Con fecha 7 de abril de 2003 y a la vista de la documentación presentada como justificación de las actividades desarrolladas en el año 2002 la Consejera de Cultura resolvió no abonar el segundo pago correspondiente a la subvención concedida en el ejercicio 2002 e iniciar el procedimiento de reintegro de los 4.507,50 € anteriormente abonados al considerar que la actividad cultural desarrollada no coincidía con la aprobada por el departamento. La Fundación presentó el 29 de abril alegaciones a dicha Orden. Con fecha 6 de octubre de 2003 la Consejera de Cultura resolvió, a la vista de las mismas, acordar el reintegro de la subvención abonada y la suspensión definitiva del 25% pendiente de abono. El 14 de noviembre de 2003 la Fundación ha presentado el correspondiente recurso de reposición.

Con respecto a la concesión de la subvención las deficiencias detectadas han sido las siguientes:

1. No se ha efectuado la valoración del proyecto presentado por la Fundación conforme a los criterios señalados en el artículo 8 de la Orden de 7 de junio de 2000.
2. En el año 2001 no se cumplió el plazo establecido para efectuar la propuesta de resolución, acumulando casi 2 meses de retraso. En 2002, aunque la propuesta sí se efectuó dentro del plazo, la resolución se aprobó también con un retraso de casi 2 meses.
3. En el año 2001 se aceptó la solicitud pese a que no presentaba el nivel mínimo de autofinanciación del 30%.
4. Si bien la subvención del 2001 se concedió para la publicación de las conferencias celebradas, la solicitud era para la edición de 4 libros.

En la justificación del objeto de la subvención las deficiencias detectadas han sido las siguientes:

1. No se ha comunicado la subvención concedida a la Fundación por parte de la DFA en el año 2001.
2. Los títulos de las conferencias previstas y los de las efectivamente realizadas por la Fundación en 2001 y 2002 no coinciden. Además, el número de las previstas (8 en 2001 y 5 en 2002) es superior al de las efectivamente realizadas (6 en 2001 y 3 en 2002).
3. En el año 2001 se ha editado o colaborado en la edición de 3 libros y se ha efectuado una transcripción de las conferencias, aunque no consta su publicación o forma de difusión. En el año 2002 la solicitud y concesión eran para la publicación de las conferencias editándose en su lugar un libro, sin haber comunicado previamente dicho cambio al Departamento de Cultura.
4. El gasto incurrido en 2002, según la Fundación, ascendió a 36.829,66 €, mientras que el presupuesto presentado y aprobado era de 50.841,09 €. Del gasto incurrido hemos podido constatar la justificación de gastos por importe de 31.692,49 €.
5. En la publicidad efectuada de las conferencias celebradas no consta el patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Finalmente señalar que los principales aspectos que han provocado la anulación de la subvención del ejercicio 2002 y la presentación, primero del recurso de alzada y posteriormente del de reposición, son los siguientes:

1. Si las actividades realizadas cumplen o no con los requisitos de la concesión de la subvención.
2. El importe justificado y si éste es el mínimo a justificar requerido por la normativa.
3. Si nos encontramos ante un supuesto de incumplimiento o ante una menor ejecución de la actividad.

ALEGAZIOAK

Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Saitetik jasotako alegazioak

Emakidan azaleratu diren hutsei dagokienez, zera adierazi behar dugu:

1. Kultur proiektuei dirulaguntzak emateko erabilitako prozedura lehia sinplea eta EZ konpetitiboa dela.
2. Halaber, Epaitegiaren txostenak dioenean: “ez du objektibotasuna bermatzen...”, gure ustez, emakidan ustezko objektibotasun hori ez litzateke norgehiagoka prozedura bidez lortuko, izan ere, aurrez finkatutako irizpideen arabera puntuaketa prozedura, berdin-berdin litzateke subjektiboa.
3. Ematen diren dirulaguntza guzti eta bakoitzean, besteak beste, proiektuaren bideragarritasun irizpidea erabiltzen dela, hau da, proiektua gauzatzeko “behar hainbateko” iritzitako diru kopuruak ematen dira.

Justifikazioan azaleratu diren hutsei dagokienez, zera adierazi behar dugu:

1. 3. atalean, honako hau dioenean: “2002an egindako ustiaketa gastuaren zenbatekoa, Fundazioen Erregistroan gordailatutako kontuen arabera, 33.981 eurokoa izan zen, aurkeztu eta onartutako aurrekontua 50.841 eurokoa izan zelarik”.

Honen aurrean zera esan behar dugu:

- a) Foru Dekretuak berak ederki asko adierazten duen moduan, kultur erakundeek kultur proiektuak aurkezten dituzte eta halakoak diren aldetik, aurrekontuak gutxi gora-beherakoak dira, izan ere, kasurik gehienetan ez baitakite erakunde publikoetatik jasoko dituzten dirulaguntzak zein diren eta horrek euren funtzionamendua mugatzen du.
- b) Maiz sarritan, ekonomia terminoetan mintzatuta, elkarteek aurrejartzen dituzten igurikimenak ez datoz bat erakundeen erantzunarekin, aurreikuspenak, oro har, optimistegiak izan ohi direla. Horregatik, aurkeztutako proiektuaren eta egiazko exekuzioaren artean desfasea gerta daiteke, azken batean eskuratzen dituzten diru-sarreretara mugatu behar dutelarik.

ALEGACIONES

Alegaciones recibidas del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia

Con respecto a las deficiencias detectadas en la concesión, se expone:

1. Que el procedimiento utilizado para la concesión de subvenciones a proyectos culturales es el de concurrencia simple y NO competitiva.
2. Que asimismo, cuando en el informe del Tribunal, dice: “no garantiza la objetividad...”, a nuestro entender, esa supuesta objetividad en la concesión, tampoco se lograría con el procedimiento de concurrencia competitiva, pues el proceso de puntuación en base a los criterios previamente establecidos, serían igualmente subjetivos.
3. Que en todas y cada una de las ayudas que se conceden, se utiliza, entre otros, el criterio de viabilidad del proyecto, esto es, se conceden cantidades que se entienden “suficientes” para la realización del proyecto.

Con respecto a las deficiencias detectadas en la justificación, se expone:

1. Que en el punto 3, donde dice: “El importe del gasto de explotación incurrido en 2002, según las cuentas depositadas en el Registro de Fundaciones, ascendió a 33.981 €, mientras que el presupuesto aprobado era de 50.841 €”.

En este sentido cabe señalar lo siguiente:

- a) Que como bien señala el propio Decreto Foral, las entidades culturales presentan proyectos culturales, y como tales, los presupuestos son aproximativos pues en la mayoría de las ocasiones desconocen las subvenciones que van a recibir de las entidades públicas, lo cual condiciona su funcionamiento.
- b) Que en numerosas ocasiones y hablando en términos económicos, las expectativas que las asociaciones se marcan, no se corresponden con la respuesta institucional, siendo sus previsiones en general, excesivamente optimistas. Por ello, entre el proyecto presentado y la ejecución real puede producirse un desfase, debiendo éstas ajustarse a los ingresos que finalmente perciben.